

Moody's-ek Kutxabanken lehentasunezko zor seniorraren kalifikazioa berrikusi du

A2tik A3ra jaisteak pasibo-mota horretarako galera larriagoak izateko espektatibari erantzuten dio, eta hori Europako lege-aldaketaren ondorioz, gordailugileen lehentasuna sartu baitu

Bankuari buruzko ikuspegi positiboari eutsi egin dio, eta gainerako ratingak berretsi ditu, bere kaudimenean, emaitzen sorkuntza sendoan, berankortasun txikian –sektoreko txikiena– eta finantzaketa- eta likidezia-posizioan oinarrituta

2026.04.21.- Moody's kalifikazio-agentziak Kutxabanken lehentasunezko zor seniorraren kalifikazioa berrikusi du, pasibo-mota horretarako galera handiagoak izateko espektatibari erantzunez. Izan ere, Europako lege-aldaketak gordailugileen lehentasuna sartu du, 2026ko martxoan onartutako Krisia Kudeatzeko eta Gordailuak Bermatzeko (Crisis Management and Deposit Insurance, CMDI) lege-paketearen zati gisa.

Horren ondorioz, agentziaren kalifikazioa Kutxabanken lehentasunezko zor seniorrari buruz A2tik A3ra jaitsi da.

Moody's-ek Kutxabanki buruzko ikuspegi positiboari eutsi dio, eta erakundearen gainerako ratingak berretsi ditu, galeren larritasun-hipotesietan aldaketarik ez eta berezko ratinga [Baseline Credit Assessment (BCA, ingelesez)] berretsi duelako.

2025eko urrian, agentziak lehentasunezko zor seniorraren kalifikazioa A2ra igo zuen (orain Europako legedi berriagatik berrikusi du), eta lehentasunezkoa ez den zor seniorra Baa1-era, baita hipoteka-zedulen kalifikazioa Aa1-etik Aaa-ra ere.

Agentziak bere iritzia kaudimenaren sendotasunean, emaitzen sorrera sendoan, berankortasun txikian –sektoreko txikiena– eta finantzaketa- eta likidezia-posizioan oinarritu du, txikizkako edo xehekako gordailuen oinarri zabal eta granularrean oinarritua.